

URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA TXOSTENA

Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietatearen Akziodun Bakarrari honakoaren berri ematen diogu, Arabako Foru Aldundiaren aginduz:

1. Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietateko kontu orokorrak ikuskatu ditugu. Sozietate horretako administratzaileak egin beharreko ondorengo agiri hauek dira, hain zuzen, kontu horien osagaiak: 2009ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtua, galera eta irabazien kontua, ondare garbieren egoeraren aldaketak, diru-fluxuaren egoera eta aipatutako datari dagokion urteko txostena. Urteko kontu horiek orotara hartu eta horien gainean gure iritzia ematea da gure erantzukizuna. Iritzi horrek, betiere, orokorrean onartutako ikuskaritza arauei jarraituz egindako lanean izan behar du oinarria. Eta arau horiek betetzeko, bada, nahitaezkoa da alderdi jakin batzuen gaineko probak egitea, urteko kontuen justifikazio-ebidentzia aztertzea, bai eta horiek aurkezteko era, aplikatutako kontularitza-printzipioak eta egindako kalkuluak ebaluatzea ere.

2. Merkataritza-legeriarekin ados, administratzaileek – konparatzeko helburuarekin –, balantzearen partida bakoitzarekin eta galera eta irabazien kontuarekin, ondare garbian egondako aldaketen egoerarekin, diru-fluxuen egoerarekin eta memoriarekin batera, 2009ko ekitaldiko zenbakiez gain, aurreko ekitaldiko kopuruak ere aurkeztu dituzte. Guk ematen dugun iritzia 2009ko ekitaldiko urteko kontuei buruzkoa da soilik. 2009ko martxoaren 18an 2008ko ekitaldiko urteko kontu laburtuei buruzko txostena aurkeztu genuen, eta gure iritzia adierazi genuen salbuespenik gabe.

3. 19. Oharrean adierazten den bezala, Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2010eko otsailaren 16an 78 Foru Erabakia xedatu zuen eta haren bidez, Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietatearen esku utzi zen beste norbaiten bidez Gasteizko Fernando Buesa Arena Pabilioia konpondu eta handitzeko obrak eta laguntza teknikoak gauzatzeko lana. 2010eko martxoaren 5an Administrazio Kontseiluak mandatu hori gauzatea onetsi zuen.

Jardueraren finantzaketa Araba Garapen Agentzia, S.A.U. erakundearen esku geratuko zen, eta baliabideak epe luzerako zorpetze jardueren bidez eskura zitezkeen, baita beste erakunde batzuekin egindako lankidetzak hitzarmenen ondorioz jaso ditzakeen transferentzien bidez ere. Gauzatutako jardueren emaitza Arabako Foru Aldundiarena izango da.

INFORME DE AUDITORIA DE CUENTAS ANUALES

Al Accionista Único de Alava Agencia de Desarrollo, S.A.U., por encargo de la Diputación Foral de Alava:

1. Hemos auditado las cuentas anuales de Alava Agencia de Desarrollo, S.A.U., que comprenden el balance de situación al 31 de Diciembre de 2009, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo y la memoria correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, cuya formulación es responsabilidad de los administradores de la Sociedad. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las citadas cuentas anuales en su conjunto, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de las cuentas anuales y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

2. De acuerdo con la legislación mercantil, los administradores presentan, a efectos comparativos, con cada una de las partidas del balance, de la cuenta de pérdidas y ganancias, del estado de cambios en el patrimonio neto, del estado de flujos de efectivo y de la memoria, además de las cifras del ejercicio 2009, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a las cuentas anuales del ejercicio 2009. Con fecha 18 de marzo de 2009 emitimos nuestro informe de auditoría acerca de las cuentas anuales del ejercicio 2008, en el que expresamos una opinión sin salvedades.

3. Tal y como se cita en la Nota nº 19, el Consejo de Diputados de la Excm. Diputación Foral de Alava dictó con fecha 16 de febrero de 2010, el Acuerdo Foral nº 78, que indicaba el encargo a Alava Agencia de Desarrollo, S.A.U. de la ejecución por terceros de las obras y ayudas técnicas necesarias par la reforma y ampliación del Pabellón Fernando Buesa Arena de Vitoria-Gasteiz. Con fecha 5 de marzo de 2010, el Consejo de Administración aprobó la realización de dicho encargo.

La financiación de las operaciones correría a cargo de Alava Agencia de Desarrollo, S.A.U., pudiendo disponer de recursos formalizando operaciones de endeudamiento a largo plazo, así como transferencias que reciba en virtud de convenios de colaboración con otros organismos. El resultado de las acciones ejecutadas será de la Diputación Foral de Alava.


4. Gure ustez, erantsitako 2009ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi garrantzitsu guztietan, Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietateak 2009ko abenduaren 31n zuen ondarea, bere egoera finantzarioa eta bere eragiketen emaitzak diren bezala islatzen ditu, baita ondare gordin aldaketak eta egun horretan bukatu zen urteko ekitaldiari dagozkion diru-fluxuak ere, eta horrez gain, bertan, behar bezala interpretatu eta ulertu ahal izateko adina informazio jaso da, aplikatu beharreko Espainiako araudian orokorrean onartutako kontabilitate arau eta irizpideen arabera, eta horiek aurreko ekitaldian aplikatutakoekiko uniformeak izanik.

5. Honekin batera eransten den 2009ko ekitaldiari buruzko txostenak, administratzaileen ustez beharrezko diren azalpen guztiak ematen ditu bai Elkartearen egoerari buruz, bai bere negezioen bilakaerari buruz eta bai beste zenbait gairi buruz ere, eta ez da urteko kontuen osagarri. Kudeaketaren txosten horrek ematen duen informazioa egiaztatu egin dugu eta bat dator 2009ko ekitaldiko urteko kontuekin. Gure lana, ikuskatzaile garen aldetik, kudeaketa txostena egiaztatzea da, paragrafo honetan aipatu dugun irismenarekin, eta horrek ez dakar Elkartearen bestelako erregistro kontuetatik lortutako informazioa ikuskatzea.

4. En nuestra opinión, las cuentas anuales del ejercicio 2009 adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de Alava Agencia de Desarrollo, S.A.U. al 31 de diciembre de 2009 y de los resultados de sus operaciones, de los cambios en el patrimonio neto y de los flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha y contienen la información necesaria y suficiente para su interpretación y comprensión adecuada, de conformidad con los principios y normas contables generalmente aceptados en la normativa española que resultan de aplicación, que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

5. El informe de gestión adjunto del ejercicio 2009 contiene las explicaciones que los Administradores consideran oportunas sobre la situación de la Sociedad, la evolución de sus negocios y sobre otros asuntos y no forma parte integrante de las cuentas anuales. Hemos verificado que la información contable que contiene el citado informe de gestión concuerda con la de las cuentas anuales del ejercicio 2009. Nuestro trabajo como auditores se limita a la verificación del informe de gestión con el alcance mencionado en este mismo párrafo y no incluye la revisión de información distinta de la obtenida a partir de los registros contables de la Sociedad.

Abante KLZ Auditores, S.L.P.
Inscrita en el ROAC con el nº S1632



José Ochoa de Retana Martínez de Maturana
Socio-auditor de cuentas

24 de marzo de 2010